



## **LANKIDETZA ETA KOORDINAZIORAKO PROTOKOLOA, HAURRAK ETA NERABEAK BABESTEKO FORU-ALDUNDIETAKO ZERBITZU ESPEZIALIZATUEN ETA GIZARTE-INKLUSIORAKO, LANERATZEKO ETA ENPLEGURAKO UDALETAN, ALDUNDIETAN ETA AUTONOMIA-ERKIDEGOAN DAUDEN ZERBITZUEN ARTEAN.**

### **Arazoa identifikatzea**

Lankidetzaren eta koordinaziorako protokolo honen ardura dira foru-aldundiek haurrak eta nerabeak babesteko dituzten egoitzetan daudela adin-nagusitasuna betetzen duten (edo beteko duten) neska-mutil nerabeak, baina ez dutenak aukera nahikorik edo familia-gunera itzultzeko edo emantzipazio egoera erreal batean bizitzeko, etxebizitza propio batean.

Nerabeek bukatu gabe dute bizitza autonomoa hasteko beharrezkoak diren trebetasun pertsonalak eta sozialak eskuratzeko prozesua eta/edo ez dute bizitza autonomo hori egin ahal izateko familia-euskarririk edo gutxieneko baliabiderik. Nerabeek dagoeneko ez dagoeneko legeak adin txikikoei bermatzen dien arreta, baina laguntza eta babesak jasotzen jarraitu behar dute, ez badugu nahi nerabeek bazterkeria- edo marjinazio-prozesuetan sar daitezela, maila pertsonalean zein baliabideetan dituzten gabeziak direla-eta.<sup>1 2</sup>

Gizarte-babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza-harrerako baliabideak arautzen dituen 131/2008 Dekretuak aukera ematen du nerabeek harrera-baliabideetan jarraitu dezaten emantzipaziorako prestatzeko prozesua, gehienez ere 18 hilabetez, adin nagusiak diren egunetik aurrera. Horretarako, dena dela, zaindutako pertsonaren eta erakunde publikoaren arteko alde aurreko adostasuna behar da, zaintza emateko betebeharrak legalak nerabeak 18 urte betetzearekin batera aldatzen da eta.

<sup>1</sup> Definizio honetan ez dira kontuan hartzen desgaitasunen baten ondorioz bizitza autonomoa egin ezin ahalko duten neska-mutilak, bizitza osorako edo egonaldi luzerako egoitza-zerbitzu espezializatu bat beharko badute. Tipologia hori egun lantzen ari garen lankidetzarako beste protokolo batean jorratzen da.

<sup>2</sup> Hauek ere ez dira protokolo honen xede: harrera-zentro batean adin txikikoak direlakoan hartu dituzten gazteak, baldin eta haien nortasuna eta adina ezagutu edo zehazterakoan ikusi bada adinez nagusiak zirela zentrori sartu zirenean, une horien bien artean igarotako denbora edozein dela ere.

Horrenbestez, dokumentu honek jaso egin behar ditu bai nerabeak adin-nagusitasuna betetzeak dakartzan egoerak, bai nerabea harrera-baliabidetik irtetean ager litezkeenak; irteera adin-nagusitasuna bete osteko 18. hilabetean ere gerta daiteke (salbuespen gisa, 24. hilabetean), baldin eta horrelakorik baimendu bada. Udaletan, aldundietan eta autonomia-erkidegoan gizarte-inklusiurako, laneratzeko eta enplegurako dauden zerbitzuek aurre egin behar diote gazteok harrera-baliabideetatik ateratzeak sortzen duen eskaerari.

Adierazi behar da emantzipazio- eta inklusio-prozesuek ezingo dutela bermatu —logikoa denez— gazteak lanean hastea; hortaz, baliteke gazteotako batzuk erabateko laneratzeari lortzeko zailtasun handiak izatea, nahiz eta emantzipaziorako prestatzeko prozesua arrakasta osoarekin beteta izan. Egoera hori are larriagoa izango da ekonomia eta lan-munduan, oro har, zailtasunak dauden garaietan.

Nolanahi ere, erabat onartuta dago emantzipazio-esperientzia gehienak arrakastatsua izan ohi direla, bai gazteen euren aurrerapen pertsonalari eta asetatsunari dagokionez, bai lan- eta etxebizitza-merkatu sartzeko gertaera objektiboei dagokienez ere.

### **Egoera honetan dauden gazteen tipologia.**

Nahiz eta dekretuaren filosofian eta idazketan bertan ez ziren gazteak haien jatorriaren edo migrazio-egoeraren arabera bereizi, praktikoagoa da —protokolo honetan gogoetak eta jarduteko proposamenak zehaztearren— talde zehatzak bereiztea edo mugatzea.

Protokolo honetan jorratzen den arazoa ohikoagoa eta garrantzitsuagoa izan ohi da bidaiderik gabeko adingabe atzerritarren taldean. Gainera, gaur egun eta lurralde historikoetako batzuetan, behintzat, haiek dira talde handiena eta esku-hartze eta baliabide gehien hartzen dituenak.

Normalean, mutilak dira, magrebtar jatorrikoak gehien-gehienak (batzuetan Saharaz hegoaldekoak ere egoten dira, eta, oso-oso gutxitan, berriz, beste jatorri batzuetakoak), migrazio-prozesua amaituta, adin txikikoei dagokien tratamendua jaso dute, eta, haurrak babesteko zerbitzuen harrera-baliabideetako batean bete dute adin-nagusitasuna edo betetzear daude. Beraz, erakunde publiko baten tutoretzapean daude edo egon dira, ez dute familia-erreferenterik izaten inguruan eta haien etorkizunerako esanguratsua diren zenbait faktoreri dagokienez egoera ezberdinetan egon daitezke. Faktoreok hauek dira:

- Haurrak babesteko Zerbitzuetan daramaten denbora
- Dokumentazioaren egoera
- Prestakuntza-ibilbidea
- Gaztelaniaren ezaguera errez ulertzeko
- Historio pertsonala, gizarte trebetasunak, norberaren ezaugarriak

Haurrak babesteko zerbitzuetan harreraren daramaten denbora.  
Haien dokumentazioaren egoera.  
Egin duten edo egiten ari diren prestakuntza-ibilbidea.  
Gaztelania ezagutzea, gure ingurunean aise ibiltzeko bestekoa.  
Historia pertsonala, trebetasun sozialak, ezaugarri indibidualak, etab.

Dena dela, beste mota bateko gazteak ere badaude: atzerritarrak ez direnak. Gazteok ere haurrak babesteko zerbitzuetan harreraren egon dira, baina dagoeneko adin nagusiak dira edo igaro da adin-nagusitasuna bete dutenentzako dekretuan ezartzen den 18 hilabeteko epea, baina oraindik ez dituzte baldintza egokiak edo familiara eta gizartera ondo itzultzeko edo benetako emantzipazioa eta autonomia lortzeko. Gazteon arazoak beste atal batean landuko dira.

Arestian ere esan dugu gazteok, talde batekoek zein bestekoek, arreta eta laguntza jasotzen jarraitu behar dutela, baldin eta arrakastaz burutuko badute bazterkeria- eta marjinazio-prozesuetan ez sartzeko eta emantzipazioa eta gizarte-integrazioa lortzeko hasi duten prozesua. Bada, arreta eta laguntza behar horrek justifikatzen du, hain zuzen ere, lankidetzaren eta koordinaziorako protokolo hau, haurrak eta nerabeak babesteko zerbitzu espezializatuen eta gizarte-inkluziorako, laneratzeko eta enplegurako zerbitzuen artekoa.

### **Errealitate eta irizpide ezberdinak hiru lurralde historikoetan.**

Argi utzi behar da hiru lurralde historikoek zenbait alderditan duten abiapuntuko egoera oso ezberdina dela; hauek dira alderdiok:

- egoitza-harreraren errealitate orokorra,
- babes-zerbitzuetan dauden bidaidetik gabeko adingabe atzerritarrak (kasuen kopurua, esku hartzeko irizpideak, egoitza motak, etab.),
- gizarte-inkluziorako zerbitzuak (haietara sartzeko baldintzak, gaztak zerbitzuotan onartzeko irizpideak, egonaldien epeak, laguntza osagarriak, etab.), eta
- kasuak zerbitzu batetik bestera bidaltzeko irizpideak.

Errealitatea oso ezberdina hiru lurralde historikoen artean; beraz, protokolo honetan egin daitekeen gauza bakarra da lankidetzarako eta koordinaziorako gutxienezko ildo generiko batzuk proposatzea. Une honetan, ez dirudi ez lortzeko modukoa ez errealista denik esku hartzeko irizpideak bateratzen saiatzea: administrazio-unitate askok hartzen dute parte eta gazteon jatorriari lotutako errealitateak oso ezberdinak dira.

Gainera, bidaidetik gabeko adingabe atzerritarren kasuan beste faktore bat ere hartu behar da aintzat: adingabeon fenomenoak duen bilakaera egunetik egunera aldatuz doa eta ezin da aurrez ikusi; hortaz, aldatuz doaz horrelako kasuetan esku hartzeko lurralde bakoitzean erabiltzen diren irizpideak eta

ereduak. Ondorioz, sarritan berrikusketak eta doikuntzak egin behar dira gazteon kasuetan parte hartzen duten zerbitzu guztiek esku hartzeko dituzten aukeretan eta moduetan.

Nolanahi ere, zehatz-mehatz azalduko da zein zailtasun aurkitu diren.

### **Aurkitutako zailtasunak**

Jarraian hainbat egoera azaltzen dira: batzuk erabiltzaileentzako zailtasuntzat jotzen dira; beste batzuek zerbitzuen artean koordinatzeko zailtasunak sortzen dituzte, eta azken batzuek erakusten dute hiru lurralde historikoetan egiten den esku-hartzea erabat ezberdina dela (batzuetan, kontrajarria ere bai).

### **Bidaiderik gabeko adingabe atzerritarren kolektiboa dela eta**

#### **1.- Haurrentzako zerbitzuetako egoitzetan jarraitzea dekretuak baimentzen dituen 18 hilabeteetan.**

Ikusten da ez direla berdinak bidaiderik gabeko adingabe atzerritarrei eta lurraldekoak bertakoak diren adingabeei adin-nagusitasuna bete ostean ere babes-zerbitzuen arreta jasotzeko eskaintzen zaizkien aukerak —hala errealak nola formalak—.

Kasu batzuetan, bidaiderik gabeko adingabe atzerritarrak berariaz uzten dira zerbitzuetan jarraitzeko aukera horretatik kanpo. Dena dela, beste batzuetan, bai eskaintzen zaie aukera hori, beste baliabide batzuetara joan arte itxaroteko denbora gisa, baldin eta gazte hori beste baliabide batean onartu ahal badute, baina une horretan bertan inklusiorako zerbitzuek leku liberrik ez badute.

#### **2.- Inklusiorako zerbitzuetan emantzipaziorako berariazko programak egotea**

Faktore diferentzial garrantzitsu bat dago: lurralde batzuetan arreta-programa espezifikoak dituzte haurren zerbitzuetako baliabideak utzi behar dituzten gazteentzat; beste batzuetan, aldiz, ez.

#### **3.- Inklusiorako zerbitzuetako emantzipazio-programetara sartzeko baldintzak.**

Gizarte-inklusiorako zerbitzuetan egoitza-laguntzarako baliabide espezifikoak baldin badaude, nahiko homogeenak izaten dira haietara sartzeko baldintzak. Besteak beste, egokitzapen sozial eta pertsonal ona eskatzen da. Nolanahi ere, sartzeko baldintzetako bat oso ezberdina da: batzuetan, zerbitzu horietara sartu aurretik babes-zerbitzuen menpe gutxienez epe batez (adibidez, urtebetez) egotea eskatzen da.

#### **4.- Zerbitzu batera sartzeko baldintzak betetzen ez dituzten gazte batzuk berehala arretarik gabe eta baliabide faltan geratzea.**

Adin-nagusitasuna betetzen dutenean, gazte batzuk berehala ateratzen dira babes-zerbitzuetatik, batetik, ez dutelako zerbitzu batera sartzeko baldintzaren bat betetzen, eta, bestetik, arestian adierazi den bezala, ezin dutelako haurrentzako baliabideetan jarraitu. Batzuetan, inolako babes ez estaldurarik gabe geratzen dira: ez dute ez egoitzarik, ez baliabide ekonomikorik, ez mantenurik.

Baliabide edo aukera falta dago babesik gabe geratzen diren gazteoi laguntzeko. Kasu jakin batzuetan, baliabide falta hori pertsonak izan ditzaketen defizitei batzen zaizkie eta, ondorioz, gizarte-bazterkeria larriko egoerak sortu ahal dira.

Era berean, beste arazo bat ere agertzen da: gazte batzuk gizarte-inklusioko baliabide batera sartu eta handik gutxira kanporatzen dituzte, elkarbizitzarako baldintzak betetzeko zailtasunak izateagatik, dela gabezia pertsonalak dituztelako, dela elkarbizitzarako prestakuntza nahikoa jaso ez dutelako aurretik, dela elkarbizitzarako irizpideetan aldaketa handia ikusi dutelako zerbitzu batetik bestera igarotzerakoan.

Kasu bietan ikusten da sarritan arreta behar handiena eta baztertuta edo marjinatuta geratzeko arrisku handiena duten gazteak direla erakundeek eskaintzen duten laguntza eta estalduratik kanpo gehien eta arinen geratzen direnak.

Gabezia horiek modu partzialean konpentsatu dira gizarte-ekimenei esker, ekimenok gazteoi laguntza eta orientazioa ematen saiatzen dira —batzuk beste batzuk baino modu formalagoan—.

#### **5.- Gizarte-inklusioko zerbitzuek garatzen dituzten emantzipazio-programen iraupena.**

Gizarte-inklusioko zerbitzuek garatzen dituzten emantzipazio-programen iraupena batzuetan ez da nahikotzat jotzen gazte horietako batzuek pertsona gisa heldu, prestatu eta trebatzeko behar dituzten prozesu pertsonalak burutzeko.

Gazteok, batzuetan, egoerei aurre egiteko prest egon barik ateratzen dira zerbitzuotatik, haurrak babesteko zerbitzuetan gertatzen den bezala.

#### **6.- Egoitzetara sartzeko zailtasunak, haietan lekua falta dela eta.**

Kasuen arabera, ikusten da gizarte-inklusioko zerbitzuetan ez dagoela baliabide nahikorik zerbitzuok ezarritako irizpideen ondorioz sortutako eskariari

erantzuteko: gazteok, batzuetan, nora joan ez dakitela geratzen dira, zain eta/edo zalantzaz beteta, eta horrelako egoerak sortzea zerbitzuek ezarritako irizpideen aurka doa.

Kasu batzuetan ezin dute babes-zerbitzuko egoitza batetik irten beste zerbitzuetan lekurik ez dagoelako, nahiz eta gazteon ibilbidean zerbitzu hartatik irteteko une egokia izan, nahiz eta beste adingabe batzuek lekuok behar eta nahiz eta haurrentzako baliabideak erabat beteta egotea eragin.

## **7.- Gizarteratzeko laguntza ekonomikoak lortzea.**

Hiru lurraldeek ez dituzte homogeneizatu ez kolektibo horrentzat dauden laguntza ekonomikoak, ez haiek lortzeko baldintzak.

## **8.- Egoitza-baliabideen baldintzak.**

Alde handiak daude egoitzek dituzten baldintza estrukturaleri edo zerbitzu batean edo bestean arreta jasotzeko baldintzei dagokienez. Adibidez, ezberdintasunak egongo dira baliabide bakoitzeko erabiltzaile kopuruari, profesionalen estaldurari, higiezinaren beharrei, eta abarri buruz. Paradoxikoa bada ere, inklusiorako zerbitzuetako baliabideetan baldintzak zorrotzagoak eskatzen dira, modu positiboan eta zerbitzuaren kalitateari eta bermeari dagokionez.

## **Adin-nagusitasuna betetzen duten gainerako adingabeak**

### **1.- Emantzipaziorako egoitza-programa espezifikokoak ez dira nahikoak.**

Ikusten da tratamendu ezberdina ematen zaiela lurraldekoak bertakoak diren adingabeei eta bidaidetik gabeko adingabe atzerritarrei, hau da, ez dituzte aukera berdinak gizarte-inklusioko zerbitzuen babeseko egoitza batean egoteko, nahiz eta zerbitzu jakin batzuk lortzeko ezarrita dauden baldintzak bete.

Lurralde historikoren baten kasuan, lurralde horretan etorkinei zuzenduta dauden emantzipaziorako egoitza-programa espezifikoek etorkinak ez direnak eskuratu ezin dituzten aukerak eskaintzen dituzte, nahiz eta gazte horiek guztiek, etorkinak zein ez, emantzipazio-prozesua burutzeko antzeko egoera edo zailtasun pertsonalak izan.

Dena dela, oro har aukera handiagoak dituzte 19 urte eta erdi bete arte babes-zerbitzuen egoitza batean egoteko.

## **2.- Gizarteratzeko laguntza ekonomikoak lortzeko zailtasunak.**

Irizpide diferentzialak daude talde batek eta besteak gizarteratzeko laguntza ekonomikoak lortzeko dituen aukera errealei dagokienez.

## **3.- Egoera eta baliabide bereziak generoaren arabera.**

Lurralde historiko batzuetan, egoitza-harreran egon diren neska nerabeek, adin-nagusitasuna betetzen dutenean, baliabide eta laguntza espezifikoak eta ezberdinak jaso ahal dituzte emakumeei laguntzeko zerbitzuetan, baldin eta halakorik behar badute edo halakorik komeni bazaie haien emantzipazio-prozesua burutzeko.

## **Hobetzeko eta koordinatzeko proposamenak**

### **1.- Egoitza-harrera kudeatzeko irizpideak bateratzea hiru lurralde historikoetan**

Nahiz eta eskumena lurralde bakoitzak duen, oso positibotzat jotzen da koordinaziorako bide egonkorak ezartzea hiru foru erakundeen artean, bai eta irizpide komunak finkatzea ere, hiru lurraldeetako egoitza-harreraren funtseko zenbait alde kudeatzeko, ez dadin gertatu esku hartzeko eremu batzuetan eredu ezberdinak eta kontraesankorrak egotea.

### **2.- Oinarrizko gizarte-zerbitzuekin dagoen komunikazioa hobetzea.**

Oinarrizko gizarte-zerbitzuekin dagoen komunikazioa hobetzea eskatzen da, bai foru erakundeek eta autonomia-erkidegoak eskaintzen dituzten zerbitzu eta laguntzetarako, bai udalerriek gero aurre egin behar dieten kasuetarako. Komunikazioaren hobekuntza hori, hein batean, dagoeneko jasota eta landuta dago aurretik sinatutako beste protokolo batean.

### **3.- Haurren zerbitzuen eta inklusiorako zerbitzuen arteko koordinazioa hobetzea.**

Aldundiei dagokien eremuan, oro har ondo ezarrita eta jarraitua izaten da zerbitzuon arteko koordinazioa eta komunikazioa, baldin eta lurralde horretan zehaztuta badago gazteak haurrak eta nerabeak babesteko zerbitzuetatik gizarte-inklusiorako zerbitzuetara bideratu behar direla. Kasuak zerbitzu bien artean bideratzeko protokoloak eta haien arteko lankidetzarako bilerak izaten dituzte. Dena dela, ikusi da beharrak, batetik, eta inklusiorako zerbitzuetan beharroi ematen zaien erantzuna, bestetik, ez datozela guztiz bat; hortaz,

beharrak eta eskaria doitzeko lanean ari dira zerbitzuok. Ikusi da, halaber, eta aurretik ere horrela aipatu da, hiru lurraldeetan irizpide ezberdinak daudela kasuak haurren zerbitzutik inklusiorako zerbitzura bideratzea dela eta.

#### **4.- Babes-zerbitzuak uzten dituzten gazteei laguntzeko programak zabaltea.**

Nahiz eta emantzipaziorako egoitza-zerbitzuak oso inportanteak eta garrantzitsuak diren adin-nagusitasuna haurren babeserako zerbitzuetan betetzen duten gazteentzat, azpimarratu behar da beste laguntza-programa batzuek ere garrantzi bera dutela, hain zuzen ere, egoitzakoak izan gabe orientazio pertsonalerako, lana bilatzeko eta gizartean integratzeko direnek.

— 0 — 0 — 0 — 0 —